

UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2015

PPren azken gotorlekua eror liteke Araban

Araba ezkutuan izan da sarri euskal lurraldeen artean, asko nabarmendu barik. Edo bai, Espainiako eskuinak azken urte luzeetan bere euskal gotorleku gisa agertu du. Hori da orain kolokan jarri dena eta, Nafarroan bezala, euskal herritar askoren begirada Araban finkatu da.

| XABIER LETONA |

Araba jeltzale eta popularren lurraldea izan da azken 30 urteetan, bai Gasteizko Udalean eta baita Foru Diputazioan ere. Jose Angel Cuerda, Ramón Rabanera, Alfonso Alonso... dira azken hamarkadetako agintari ezagunenak. Salbuespen bakanak izan dira, PSEk bitan hartu du agintea, behin Diputazioan –ETAk hil zuen Fernando Buesaren eskutik 1987-1991)– eta beste behin Gasteizko Udalean (2007-2011, Patxi Lazkoz). Azken 16 urteetan PP izan da alderdi nagusia lurraldean (1999an eta 2003an EAJ eta EA koalizioan joan ziren salbuespenekin), baina EAren sostenguak 2007-2011n Xabier Agirre jeltzaleari eman zion Diputazioko aginte makila.

Bat-batean, hala ere, ezuste handia izan zen 2011n, infografiatan argi ikusten den bezala. Bilduk (Sortu, EA eta Alternatiba) gorakada historikoa izan zuen eta ondorengo bi hauteskundeetan ere joe-rak jarraipena izango zuen. Ordura arte, ezker abertzalearen eta EAren azken 25 urteetako garairik onenak batuta ere, ez ziren 30.000 botori iristen. 2012ko Espainiako Legebiltzarrerakoetan 34.000 boto lortu zuen Amaiur koalizioak (egungo EH Bilduk). Azken danbatekoa 2014ko europarretan izan zen, lehenbiziz historian ezkerreko abertzaleen koalizio batek irabaztea lortu zuen Araban, hori bai %43ko partehartzearekin.

Edozein eratan, gauza bat oso garbi izan behar da Araban, Batzar Nagusietako eserlekuen %65 Gastei-



GORA GASTEIZ

Javier Marotok ez du zalantzarik izan hauteskunderi begira immigrazioaren mamuak haizatzeko eta herritarrek Gora Gasteiz ekimenarekin erantzun diote.

zen erabakitzen da, 51tik 38. Gasteiz azken 35 urteetan 50.000 biztanle handitu da (Bilbok 84.000 bat galdu ditu adibidez) eta 1980an Eusko Jaurlaritzan han finkatzeak badu zerikusirik hazkunde horrekin. Edozelan izanda ere, PPK ez du gustuko gertatzen ari den hegemonia aldaketa, azken urteetan boto espainiarzalea atzerakada handia izaten ari delako. Ikusi behar azken bost urteetako joera mantentzen den. Javier de Andrés ahaldu nagusiak argi du eta bere ustez, bai Arabaren euskalduntze datu positiboak eta bai boto abertzalearen gorakada, Bizkaitik eta Gipuzkoatik euskararen abantailare-

kin administrazioan “arabarrei lana kentzera” etorritakoen ondorio da. Eta testuinguru horretan, aurrekainan EH Bildurekiko argiagotzatzen zen: “morralla hori”.

PPren gai izarra, baina, Arabara lanera etorritako immigranteena da eta Javier Maroto Gasteizko alkateak kanpaina gogorra bideratu du esanez hauek iruzur egiten dutela Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren (DBE) diru-laguntzekin. Gora Gasteiz herri ekimen arrakastatsurekin erantzun diote herritarrek, baina Marotok jadanik 40.000 sinadura bildu ditu Eusko Legebiltzarraren lege proposamena egiteko.



Ez da PPren erreinua

Iñaki Larrañaga

KAZETARIA

ORAIN DELA lau urte PPK irabazi zituen udal nahiz foru hauteskundeak, Araban eta Gasteizen. Maroto alkate izendatu zuten, eta De Andres ahaldun nagusi, PSEren botoei esker. Gezurra badirudi ere, hemendik egun gutxira, maiatzaren 24ko bozetan, bi erakunde horietan gobernu abertzaleak eratzeko baldintzak daude. Aldundian batez ere, eta neurri txikiago batean, hiriburuan ere bai.

Batzar Nagusiak

Hiruren arteko lehia estua sumatzeko nahikoa da, inkestak bazterrean utzita, herrialdeko azken bozketak neurtzea: 2011n PP garaile, 2012ko autonomikoetan EAJ, 2014ko europarretan EH Bildu. Edo-nork irabazi dezakeen oreka horretan, lehenbiziko suertatzeak ez du Arabako agintea bermatuko. Indar bozkatuena oposizioan gelditu da zenbaitetan: 1987an, 2003an eta 2007an. Oraingoan ere bai, hauteskundeen osteko akordioetan egongo da gakoa.

Alderdi Popularra esku hutsik utziko luke Gasteiz eta Araba galtzeak. Dena ematen ari dira kanpainan haien azken euskal gotorlekua defendatzeko. Kezkatzeko arrazoiak dituzte. Espainiako PPren beherakadak islada izan ohi du Araban. Eta, azpi-

marratzeko arrazoia: De Andresek ez du inbestidura saioan PSEren babesik izango, 2011n izan zuen bezala, orain ez dagoelako Ajuria Enean mesedea itzuli behar dion Patxi Lopezik.

Eskurik onena EAJk dauka. 2012an 40.000 botoen langa gainditu zuen Araban, Urkulluren alde. Horri eutsiz gero, lehen indarra lirateke. Baina bestela ere, PPren atzetik egonagatik, gehiengoa lortzeko EH Bilduren botoak jaso ditzake Aldundian.

2011n koalizioak “doan” eman zizkion. PSEren babesa ere hel dakiok. Aldundiko makila hartzeko aukera handiak Ramiro Gonzalez jeltzaleak ditu.

EH Bilduri dagokiona Europako hauteskunderetako sorpresa berrestea da. Boto leialaz gain, Salburua eta Zabalgana auzo berri, gazte eta jendetsuetan zabaltzeko joerari eustea. Garaipena gaitza da, Gasteizen zein Araban, baina inoiz baino posibleagoa. Hori bai, lehenbiziko izanda ere, nahikoa babes izango ote luke EH Bilduk Aldundirako inbestidura saioan? EAJrena? Irabaziko ezkertiarrena, akaso? Madrilen gorrotoko luketen Podemosena? Aliantzen jokoa da, itxura batean, EH Bilduren Akilesen orpoa. Dena den, ezingo zaio Gipuzkoa eta Nafarroa aldean gertatuko denari begirik kendu, horrek ere eragina izango baitu Arabako itunetan.

Udalerriak

Udalerri handienetan ere oreka harrigarria da: Laudion, Amurrión eta Agurainen, bi alderdi abertzaleen arteko lehia ehunka boto batzuen bueltan ibili zen 2011n. Aurten ere aurrez aurreko berdina espero dute Aiaraldean eta Lautadan.

Gasteizen, Maroto alkatearen berrespen frogator. PPren itzaropena. Batetik, hirian garatutako azpiegiturek eskaini dioten aitortza dauka: autobus geltokia, Hiribidearen berritzea, Salburuko Gizarte Etxea... baina, bestetik, zenbateraino higituko dituzte lorpenak, azken urteko iskanbilet? DBEren kontura sortutako afera arrazistak kaltetuko duen, ala, aldiz, txokokeria vitorianoak indartuko duen, zinez gauza ezezaguna da.


Azken finean, popularrek udaletxean erraz irabaztekotan, ezohikoa litzateke “galtzaileek” Marotori alkatetza galaraztea. Aldiz, EAJ zein EH Bildurekin berdinketa gertatzekotan 25.000 botoren inguruan, giltza hauteskunde osteko itunek izango dute. Koalizioak kanpainan iradoki du, behar izanez gero alkategai jeltzalearen alde egingo duela.



IREKIA. EUSKADI.NET

PPk oraino ez du PSEren laguntzarik izango Foru Aldundia eskuratzeko, Jaurilaritzan ez dagoelako haren beharrik duen Patxi Lopezik.

Inkestetan EH Bildu jeltzale eta popularrekin da podiumean



Infografietako emaitzetan 2007 eta 2011ko emaitzak ikus litezke eta ondorengo lerroetan lau inkestak, hiru hedabiderentzat eta hainbat garaitan eginak.

Eusko Jaurlaritzaren (El Correo) maiatzak 8


Araba: EAJ %20,7; EH Bildu %20,4; PP %19,7; PSE %15,0; Podemos %12,2; Ciudadanos %3,7; Irabazi %3.

Gasteiz: PP %20,5 (6 eserleku); EAJ %20 (6); EH Bildu %19 (6); PSE %16,5 (5); Hemen Gaude %9 (3); Irabazi %5 (1), Ciudadanos %4,5.

(Informazioaren bilketa apirilaren 22tik 29ra. Lagina, 2.170 pertsona).

Gizaker (Deiarako, apirilak 25)

Araba: EAJ %24,6 (16); EH Bildu %22,3 (13); PP %16,4 (9); PSE



%13,9 (8); Podemos %10 (4); Ciudadanos %4,1. (1).

Gasteiz: EAJ %22,5 (7); PP %22,3 (7); EH Bildu %18,6 (6); PSE %14,2 (4); Podemos lagundutako hautagaitza %10,5 (3).

(Apirilaren 13tik 20ra egin zen. Lagina, 1.150 pertsona).

Gizaker (Deiarako, urtarrilak 24)

Araba: Podemos %20,7 (12); EAJ %19,9 (12); EH Bildu %17,3 (11); %13,7 (7); PSE %12,5 (6); UPD %4,7 (2); Ezker Anitza %4,2 (1).

Gasteiz: PP %18,5 (6); %18,4 (6); Podemos sostengatutako hautagaitza %16,3 (5); EH Bildu %14,3 (4-5); UPD %5,3 (0-1); Ezker Anitza %4,7 (0-1).

(Urtarrilaren 7tik 13ra. Lagina, 3.000 pertsona).

Torre Consulting (Gararako, 2014ko azaroak 21)

Araba: EAJ %23,5 (14); EH Bildu %21,5 (12); PP %20,3 (12); PSE %14,5 (8); Podemos %8,5 (4); UPD %2,7 (1).

Gasteiz: PP %22,7 (7); EAJ %21,0 (6); EH Bildu %19,8 (6); PSE %15,1 (5); Podemos %10,5 (3). (Urriaren 13-31. 1800 pertsona).

Azken 16 urteetan PPK ez du horren zakar jarduteko beharrik izan, ETA eta gatazkaren ingurukoak nahiko trinkotzen zioten botoa. Orain ordea, hor ditu Vox eta, batez ere, Ciudadanos, eta boto guztiak dira garrantzitsuak podiumeko lehian. Ikusteko dago nola eragingo dioten auzitegiatar iritsi diren bere kudeaketapeko uestezko ustelkeria kasuek (Iradier Arena, 21 Zabalguenea, San Antonio kaleko lokalak...).

Ikusteko dagoen moduan De Miguel auziak nola eragingo dion EAJri, tartean diren 30 inputatueta-ko pertsona esanguratsuenak berari lotutakoak dira eta. Oraingoan, inkestek ez diote ezustekorik iragar-zen alde horretatik.

EH Bilduren bilakaerari zorrotz jarraituko zaio, baina horrek badu bere oinarria. Ezustekoa oraingoan Podemosetik etor liteke, nahiz eta inkestetan puxika husten ari den.

Bere botoak giltzarri izan litezke, batez ere gobernatzeko erabiltzen badituzte.

PPren hegemonia handia izan da azken 16 urteetan eta, Nafarroan bezala, aldekata eskaerarik ez da falta Araban. PP-PSE blokea nagusituko zaio berriz EAJ-EH Bilduri, 2011n bezala? EAJ-PSE ildo zahar-berria ote dator agintzera Gasteiz eta Arabara? Edo, beste barik, EH Bilduren bozkak jasoko ditu EAJk? ■